

PuLunPe

151. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



Gelditu naiz amentsetan,
ilargiaren adarretan,
dituen argizko bideetan,
ibili naiz irriz xenderetan*,
eta maiz etsípenetan !
Banenbilen lasterketan,
indarrak hantu hatsetan,
banenbilen zalapartetan,
gero gelditzeko lotan,
ilargiaren altzotan !
Argi xurian kulunketan,
ibili naiz bilintxetan,
galdua ene amentsetan,
ezin egonez lur hontan,
ongi nintzan zeru hartan !

Eduardo Izura, Latasako banatzailea

Berritsua eta umoretsua dugu Edu, telefonoz, kamioian edo aldizkaria banatzen, irribarrea ahoan dugu gure Imozko Latasako banatzailea.



Duela 18 bat urte herrira etorri zen, “emaztearen ama hemengoa da eta etxea zaharberritu ondoren hona etorri ginen”. Herrira aspaldi etorri zen, baina ez du gurean denbora gehiegirik ematen. Kamoiarekin 28 urte daramatza jada. Aste honetan, adibidez, Bartzelona aldera birritan joan da, gutxienez. “Igandean ez bazara etxetik ateratzen, gero hilabete bukaeran sumatuko duzu poltsikoan”. Eduardoren hitzetan, ogibidea asko aldatu da, “eta ez hobera”, lehen-go baldintzak, ekonomikoki behinik behin, “askoz hobeagoak” zirela dio, nahiz eta onartu, gaur egun beste ikuspegi batetik, “ogibidea askoz kontrolatuagoa” dagoela.

Hori bai, orokorrean kontzientea da ogibide sakrifikatua dela kamioi-gidariarena, “kanpoan denbora asko egon behar, familia eta lagunetatik urrun, diru inbertsio handia behar duzu lan egiteko eta egunero zaude bizitza arriskatzen errepidean”. Gaur kamoiarekin hasi beharko balitz, “ez dut uste egingo nue-nik” .

Asteke egunak kanpoan ematen dituenek, “asteburuan banatzen ditut aldizkariak”, eta horrela gainera, herriko kontuei buruz hitz egiten dugu bizilagunekin. Hori bai, aldizkariari buruz kritikarik ez diotela egiten onartu digu, “batez ere gure kontuei buruz hitz egiten dugu. Jendeak aldizkaria gaineratik begiratzen du ea herriko norbait edo ezagunen bat ateratzen den eta listo”. Aldizkaria gustura banatzen du Eduk, lau zapabost urte dira jada lantxo hau egiten duela, hori bai, askotan Maite eta Gorosen laguntzaz.

Esker mile Edu!

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: **Lur Gil Rey eta Iosu Martinez Urdaci.**

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

2016KO APIRILAREN 7AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.



ERAKUSKETA:

Irailaren

APIRILA

Erakusketak



Martxoak 14 -apirilaren 22
Larraintzar
Ahalduntze erretratoak.
Gazako emakumeen egoera.

Apirilak 25 maiatzaren 9
Larraintzar
Eskulanak, ehorziri lanak eta altzairuak
zaharberritzeko ikastaroetan egindako
lanen erakusketa.

BIGARREN ARGAZKI LEHIAKETA

PULUNPEK argazki lehiaketa bat antolatu du aurtengo ekitaldirako.

LEHIAKIDEAK: Hemen bizi den edonork har lezake parte baina gutxienez urtebete behar du hemen bizi dela. Errol-daren bidez ziurtatuko da baldintza hau.

Argazkiak aurkezteko epea: maiatzaren 22a.

Lehiakide bakoitzak bi argazki bakarrik aurkez ditzake.

SARIAK:

Lehen saria:.....300 euro

Bigarrena saria:.....200 euro

Hirugarren saria:....100 euro

Lehiaketako arauak nahi dituenak eska ditzake helbide honetara, eta emailaz igorriko dizkiogu: ametzake@gmail.com edota www.ametza.eus webgunean izanen dituzu.

LAGUNEN LAGUNA,
IDATZI NAHI NIZUKE
ZERBAIT MOTZ
BEZAIN SAKONA.

BETIERE,
IRRIFAR BATEZ
ZU GOGORATZEKO.

ELKARREKIN,
TXANTXETAN SARRI,
ZENBAT SOLASALDI!

ASKOTAN,
GAI SERIOEZ
IRRI EGITEKO.

HANDIA ZINEN;
HANDIA BEHAR
ZENUEN BIHOTZA
KABITZEKO.

JOXEJABIER, ZUMARROREN OMENEZ.

19:00 LARRAINTZAR

15



OH MY GOD. "ZER DUZU AMY?" LEIRE UCHAREKIN

Antzezlan Euskaraz
Dasyk edozein gauza egingo luke Amy Winehouseen ahotza eta talentua izateko. Baina bere ahotza arrunta da, bere itxura arrunta da eta bizitza ere, arrunta du. Amyren heriotzaren berri izan duenear, maleta hartu eta Londresera abiatu da, Edgwareburyko kanposantura.

18:00 LARRAINTZAR

22

Basaburuko Basandereok argitaratutako IPUINAREN AURKEZPENA

18:30 LARRAINTZAR



IPUINEZ IPUIN: Izaskun Mujika

Putzuetan salto egiteko oinetakoak jantzi eta plasti plasta aritzeko prestatu! Izan ere euria egin du, balna ez da edonolako euria izari, ipuinak, asmakizunak, abestiak... eta baita sorpresaren bat ere. Ipuinak entzuteko, parte hartuz gozatzeko eta blai eginda bukatzeko aukera aparta.

19:00 LARRAINTZAR

29



HITZALDIA / CHARLA

Zuhaitz zaharrak, biodibertsitate iriak eta gure kulturaren zaintzaile. Nafarroako zuhaitz eta baso helduen zaintzarako elkartearen eskutik.

euskaraz
bizi
nahi dut

RUGBY ARREN
GAUPASA 2016
MAIATZAK
14

SOROSPEN IKASTAROA ATEZEN

Hizlaria: Davinia Arraez (Erizain Diplomaduna)

Eguna: Apirilaren 6an eta 13 an

Ordua: 18:00-20:00

Lekua: Erizegoitia (udaletxea)

Hizkuntza: Gaztelania

Izena ematea: 629730410 telefonoan martxoaren 29tik aurrera
(15 lagun gehienez)

10 euroko fidantza ordainduko da. Ikastaro osoa burutzen duten guztiei itzuliko zaie dirua



Eskola Feminista Txikia

Euskal Gatazkaren eta politikaren ikuspegi berritzaileak landuz

Martxoaren 11n, Euskal Herriko Bilgune Feministak urtarilaren 16an Iruñean egin zuen Eskola Feminista Basaburura gerturatu nahi izan zuten, eta horretarako eskola feminista txikia izendatu zuten tailerra egin zuten Aizarotzen.

Iruñean antolatu ziren eskoletan, batetik, Euskal Gatazkaren irakurketa, hausnarketa edo azterketa feminista bat egin zuten. Horretarako Jule Goikotxeak “Bakea ez da existitzen, feminismoa bai” ponentzia eta Zuriñe Rodriguezek “Euskal gatazka ezaugarritzen. Feminismotik irakurketa” ponentzia aurkeztu zituzten. Goikoetxea ezin izan zuten Aizarotza ekarri baina haren bideo pare bat prestatu zituzten. Horietatik deklarazio aipagarriak ekarri dizkizuegu:



JULE GOIKOTXEA, FILOSOFO POLITIKOA:

- “Praktika eta diskurtso multzo berriak behar dira”.
- “Gaur egun inork ez du sinesten Euskal Estatuan”
- “Estatugintza feministaren diskurtsoa ez da elkarbizitza, arrazoia, deliberazioa eta bakea, baizik eta zaintza, ekonomia, borroka, biolentzia eta prestigioa”.
- “Feminismoaren helburua botere erlazio guztien analisi kritikoa eta horren ondoren eraldaketa kritikoak dira”.
- “Auzolanean ari gara lanean. Auzolan hori estatugintza bilakatzen badugu, perspektiba aldatzen da, ikuspegi makroarekin hasten zara begiratzen, eta hori da herri honetan ez duguna, perspektiba makroa. Ikuspegi hori hartzen baduzu hasten zara konexioak han-hemen bilatzen: alboko herrikoekin, besteekin...”

Sarean aurkitu dezakezu “Otorduak” deitutako bideoan, besteak beste.

Askorako ematen dute bi ponentziek, baina zerbait borobila azpimarratzearen, Aiora Epeldek honakoa azpimarratzen digu: “Batetik, orain artean Gatazka era patriarkatu batean ulertu izan dela eta Bakea nahi badugu, despatriarkalizazio prozesu kontziente bat behar dugula. Eta bestetik, Euskal gatazkaren irakurketa feminista bat egiteko beharra dugula. Eta, noski, guzti hau aurrera eramateko (irakurketak egiteko, ordainerako, konponbiderako) ahalmen politikoa behar-beharrezkoa dela”.



Pertsonala politikoa da. Gatazkak generoa dauka? izenburupean mahai-ingurua ere izan zuten Iruñean. Esan bezala, guzti hau gerturatu nahi izan zuten Basaburura. “Hasiera batean Miren Zabaleta preso ohia gonbidatu genuen gurera, baina azken momentuan ezin izan zuten etorri eta Ainara Mugeta izan genuen gurekin”. Mugetak mahai-inguruaren tituluari buruz dioenez, “Hasi ginen irakurketa zabal batekin; genero, klase eta nazio bizipenetan inposatzen zaizkigunak des-

kribatzen. Eta segitzen du “Hortaz, gure bizitzaren zutabeetan sistemaren mesedetan funtzionatzera behartzen zaigula erantzun genuen”. Azkenik, dio “Oinarrizko arloetan men egiteko prestatzen gaituzte, beraz norberarena den afera oro ulermen politikoa du. Pertsonala guztiz da politikoa”.



-GATAZKA armatuaren inguruan, Mugetak honela erantzun digu: “Espetxeek gizartearen logika berdina dute. Sistema patriarkal eta kapitalistaren neurriekin eraikitakoa, baina era bortitzekin eta indarkeriarekin eraikia. Alegia, indibidualismoan oinarritutako interesen arabera bizi den gizarte itxia, zeinetan zapalduak beharrezkoak dituzten eta horiek dira emakumeak, eta horien artean emakume immigranteak”.

-ESPETXEAK: “- Bi espetxe mota daude: mistoak eta emakumezkoentzat bakarrik. Mistoak kasuan, kartzela gehiengoarendako dago prest, alegia gizonezkoendako. Proporzioan zerbitzu eta egitura denak gizonezkoendako dira, eta emakumezkoendako higie, osasun, komunikazioak, zerbitzu... minimoak ere ez dira egokitzen. Beti ere gizonezkoek dute lehentasunezko tratua eta ondoren emakumezkoak datoz”.

- Gatazka politiko armatuaren ONDORIO guztiez ere mintzatu ziren: kasu, espetxe barruan eta espetxetik kanpo: “Presoen sostengu nagusia emakumeok egiten dugu. Dispertsioaren dimentsio politiko eta pertsonala emakumeok pairatzen dugu. Kasu, komisarietan sexua eta generoa erabili izan dute tortura metodo gisa. Militantzia politikoa gauzatzerakoan rola modu sakon batean barneratuak ditugu”.

-Bi ONDORIO ateratzen ditu Ainara Mugetak: “Lehenengoa, bizitzako eremu eta jokaera denak aztertu eta ulertu behar ditugu, zeintzuk diren jarrera naturalak ikusi eta zeintzuk sistemaren mesedetan inposatutakoak. Onartu eta kontzientzia horretatik

aurrera pertsona, gizatalde eta ingurugiro ororen askatasunaren alde egiteko ezinbesteko deia luzatu nahi izan genuen. Bigarren ondorioa, oro har gertatzen den gisan, gatazka armatuaren kontakizunean emakumearen bizitza ikusezina da oraindik. Eta ezinbestean onartu beharra dago gure parte-hartzea”.



Ordutegi arazoak zirela-eta, garapen ezberdina eman zioten eskola txikiari Basaburuan. Ainara Mugetak eta Aiora Epeldek euren bizi-esperezietatik abiatuta hainbat esperientzia mahai gaineratu eta haien inguruko hausnarketa eta iritzia emate saio batean barneratu ziren.



Aiorak hala aipatu digu: “Jule Goikoetxearen ponentziaren inguruko bideotxo bat ikusi eta honen inguruan aritzeko asmoa ere bagenuen, baina arratsaldea oso motz geratu zitzaigun. Gerturatu ginenon artean “Pertsonala politikoa da. Gatazkak generoa dauka?” gaiari buruz hitz egiten gustura geundela ikusi eta ariketa horrekintxe gozatuz joan zitzaigun arratsaldea. Beraz, Jule Goikotxearen bideoa eta euskal gatazkaren inguruko hausnarketa beste baterako uztea erabaki genuen.

Arratsaldea, infusioa eta bizkotxoa partekatzarekin batera, emakume euskal preso politikoei idazteko postalen banaketa eginez amaitu genuen giro goxoan”.

Komunikatu bidezko eztabaida politikoa Ultzaman

Bildu eta Agrupación Ultzama udal taldeek egunerokotasunezko kontuei buruz debatea izan dute publiko egin diren gutunen bidez. Komunikatuen zatiak hemen, hitzez hitz. Informazioa guztia, ametza.eus webgunean.

KONTRATAZIOAK

AU: “Ultzamako udalak 2015 urte amaieran zerbitzu anitzetako lanerako plaza bat iragarri zuen, aurrekoa erretiratu baitzen. Ordura arte prestakuntza akademikorik behar ez duen lan hauentzat erabiltzen ziren irizpideak hautsiz, EH Bilduk aldebakarreko erabakia hartu zuen eta euskerako maila igo zuen, hizkera B2-ra eta idatzia A2-ra. (Komunikazio teknikari lanpostu bat betetzeko deialdiari buruz orain) Deialdi honetan ere, EH Bilduk Ultzaman beste irizpide bat gehitzea erabaki zuen, euskeraren ezagutza maila gorenera igoz (C1 edo EGA)...”

BILDU: “Orain arte Udalak beti iragarri ditu ateraren diren lanpostuak. Postu guztietarako probak egin dira, epaimahaiak osatu dira proba horientzako eta teknikoez gain, bi udal taldeetako kideek hartu dute parte epaimahai horietan. Lanpostu bakoitzerako lana eta betekizunak behar bezala gauzatzeko beharrezkoa den euskara maila eskatu da, Ultzamarron hizkuntza eskubideak errespetatuz, alegia, euskaldunenak eta ez euskaldunenak. Hau da, aspalditik indarrean dagoen Euskararen Foru Legea bete da.”

BIOENERGIA PLANTA:

AU: “Udalak Bioenergiarekin zuen kontratua bukatutzat eman zuen. Erabaki honekin, Udalak abeltzainen mindaren kudeaketa eta tratamendua nork bere gain hartzen zuen. AU Taldeak ez du udalaren erabakia ulertzen, are gehiago, azkenaldian fabrika honetan diru kantitate handia gastatu eta gero, garbiketa eta zerbitzu osagarrietan. EH Bilduk konkurtso-administratzaileak eskatu ziola argudiatu zuen, langileak ez baitute. Baina bistakoa da, Udalak ez duela ere hortarako langileak. Beraz, EH Bilduk zerbitzu horiek

kontratatu behar izan zituen, baita ordaindu ere. Horrez gain, EH Bilduk bi egun martxan izan den motor bat konpontzeko 20.000 euro inguru gastatu zituen”.

BILDU: “Plantaren garbiketa egitea arduraz hartutako erabakia da, alegia, pilatutako gasek eragin zezaketan segurtasun arriskuak saihesteko egin zen (2016/02/04 batzarrean eman ziren azalpenak). Azken hilabeteen jarritako motor berria 16.622,16€ kostatu zen, ez 20.000€. Ezinbestekoa zen motor hori jartzea, bestela arriskua zegoen planta abenduaren 28a baino lehen eteteko eta ondorioz, diru laguntza handiena bueltatu behar izateko (500.000€)”.



BASOEN KUDEAKETA:

AU: “Azkeneko urteetan, EH Bilduk behin baino gehiagotan salatu izan du AU Taldeak mendia garbitzen eta apurtzen ari zela. EH Bilduk, berriz, udala kudeatzen dagoen lehen urte honetan, zuhaitzak botatzeko azalera bikoiztea onetsi du”.

BILDU: “Baso Antolamendua-ren Plana aho batez onartu zen 2016ko otsailaren 4ko batzarrean. Plan horrek ez ditu soilik bota daitekeen zuhaitz kopuru edo zura kantitateak arautzen, baizik eta mendian hurrengo 10 urteetan 900 hektareatan egin daitezkeen jarduerak”.

ESKOLAREN IZENA

AU: “EH Bilduk “Irurita Gotzaia” eskolaren izena aldatu behar dela eskatzen ari da behin eta berriro. AU Taldeak, gainera, Udalak gai honetan eraman duen prozedura salatzen du. Irailean, Eskola-Kontseiluak Udalari izena aldatzeko eskaria egin zion, erabaki hori hartzeko argudioak eman gabe. EH Bilduk gaia urgentzia mozio baten bidez aztertu zuen osoko bilkura batean, kurtsoa asteazkenean esanez”.

BILDU: “Eskolaren izen aldaketak ez da EHBilduk planteatutako zerbait. Eskola Kontseiluak proposatu zuen, guraso, ikasle, zuzendaritza talde, irakasle eta udaleko ordezkariak kide diren Eskola Kontseiluak berak. Hezkuntza Departamentuak lehen izen aldaketa bertan behera utzi zuen, ziklo ezberdinetarako bereizi behar zela adieraziz. Azkenik, bereizgarri hori edo zehaztasun horiek adieraziz, “Larraitxarko Ikastetxea HH-LH” eta “Larraitxarko Ikastetxea DBHI” izenak geratu dira”.

BUKAERA:

AU: “EH Bildu autonomia mailan ezarritako alderdi politikoa da, eta bai Ultzama bai ultzamarrak gutxi inporta zaie. Beste alorretan onura politikoak eskuratzeko konfidantza dute, horretarako Ultzama eta ultzamarrak zigortu behar badute ere”.

BILDU: “Azkenik, EHBildu Ultzama, Ultzamako taldea gara, bailarari begira egiten dugu lan eta gainera parte hartzea sustatzen dugu, horregatik eta horretarako sortu dira Udalean batzorde irekiak. Uste dugu jendeak hori guztia aitortzen duela eta uste dugu, guri bozka eman digutene-kiko errespetu falta izugarria dela EHBilduk Ultzama zigortzen edo kaltetzen duela esatea

Atetzen eskaintza kulturaleraz beteta



Irrelarre kultur elkarteak hilabeteen behin ekimen bereziren bat egiteko hautua hartu zuen, baina hori baino gehiago, astero ere hainbat ikastaro eta ekimen izaten dituzte. Parte-hartzea altua izaten ari da antolatutako kontu guztietan.

Martxoaren 19an fruta-arbolen inauste ikastaroa egin zuten, Iraizozko Nikasio Dorairekin. Eritzen egin zuten eta 15 pertsona inguru bildu ziren, botak eta euritakoak hartuta, eguraldia ez baitzen espero zitekeen onena. Beuntza, Olague, Eritze, Ziganda eta Aroztegitik hurbildu zen jendea Eritzera.

Gazte Eguna ospatu zuten Lizason



Ultzamako gazteek Gazte Eguna jaialdia berreskuratu dute. Beste batzuetan bezala, Lizason ospatu zuten haien jaia. Zenbait astetan egindako lana martxoaren 19an gorpuztu zen Kuartelenean. 70 pertsona inguru bildu ziren bazkaltzera, eta kontatu digutena-ren arabera, menu bikainarekin gainera: hasteko, pasta entsalada goxoa; bigarrenarako, haragia plantxan, oilaskoa eta saiheatsak; bazkaria bukatzeko postrea, eta, hori bai,, ura baino ardo eta sagardo gehiago hartu zuten. Ura, zerutik erori zen, baino modu lasaian, elkartean sartuta. Halakoetan egiten den bezala, egun osoa gazteek antolatu eta kudeatu zuten.

Bazkalostean, Aritz eta Amaia abeslariak kantu zahar ba-

Arbolei zein forma eman behar zaien, nola lortu lorea dakarren adarra enbor bihurtzea, txertoak nola egin eta halako kontuak izan zituzten hizpide. Nikasiok zioen etxean sutondoan jarrita ikasi zuela txertoak egiten, eta hori egiteko gomendioa eman zien bertaratutakoei. Txikitari txulubiteak nola egiten zituzten ere hitz egin zuten, lizar adarrak omen dira onena horretarako. Ia lau orduz egon ziren azkenean, tartean geldialdia eginez zintzurra berotzeko, txistor, ardo eta sagardoarekin.

Sorospen ikastaroa ere egiten ari dira, larrialdiren bat izanez gero, anbulantzia iritsi aurretik nola jokatu jakiteko, gure zonaldera pixkatxo bat kostatzen baitzaio iristea. Davinia Arraez erizain diplomadunarekin egiten ari dira ikastaroa, Eritzegoitin.

Eta hau guztiau gutxi balitz, astero euskal kantak izaten dituzte Aralar musika eskolarekin, eta euskal dantzak ere bai. Lehenengoan 10 eta bigarrenengan 22 pertsona elkartzen dira, eta beraz, ekimen hauek egonkortzea lortu dute. AEK-ko bi talde ere badira, euskara maila ezberdinarekin ikaste prozesuan dabilzanak.

Beraz, gutxika, baina biziberritzen ari dira biztanle gutxi duen Atezko bailara.

tzuk eskaini zituzten eta haien ondoren Atarrabiako “The Fullmans” taldeak kantatu zuen. Pare bat gitarra soinean, reggae zantzuak zituzten abesti lasaiak eskaini zituzten. Egun zoriontsua izan zen abeslari hauendako, geroago haiek asmatu baitzuten bazkalosteko gaztaren pisuaren lehiaketa! Bertako produktuen zozketa etorri zen gero: “Lote pilo bat zozketatu genituen, jogurtak, eztiak, sagardoa...” afariak ere zozketatu zituzten bailarako taberna batzuetan egiteko. Orokorrean balorazio “ona” egiten dute antolakuntzatik, “espero genuena” egin baitzuten, hori bai, arratsalde aldera egin beharreko “Olinpiadak” hurrengo baterako utzi behar...

Gau aldera kontzertuak hasi ziren eta jendea, gurean ohi denez, gutxika-gutxika aretoa betetzen joan zen. Guraso elkartekoek bokata goxo-goxoak prestatu zituzten, “merkeak eta oso handiak, benetan itzelak” kontatu digutenez. Gaueko musika taldeak maila onekoak izan ziren: Guilty Brigade, Zartako-K eta Bad Sound System. Gazte jendearen erantzuna ona izan zen, lehen aipatu bezala ordu biak aldera ailegatzen hasi baziren ere. Leporaino bete zen Kuartelenea, eta horren ondorioz, edaria bukatu zen, behin baino gehiagotan edari gehiago bilatzera joan behar izan zuten...

Gazte Eguna jendetsu eta arrakastatsua.

Batzarrean onartu dute aurrekontua Basaburuan

Alokairu sozialeko etxebizitzak eta Aizarozko ostatuaren egokitzapena, aipagarriena



Aho batez onartu zituzten aurrekontuak Basaburuan. Otsailaren 29an egin zuten batzarra eta bertan zinegotziek aurrekontua

azaldu eta inbertsioen proposamena aurkeztu zuten. Egingo diren inbertsioen artean, bi dira aipatzekoak: kopuru handienak izaki: udaletxeko 2. solairuan

2 etxebizitza zahar-berritzeko inbertsioa: alokairu sozialerako eskainiko dira. Obra honek 30.000 euroko diru-laguntza izanen du, eta irailerako bukatu behar da. Bigarrena, Aizarozko ostatuko egokitzapena. Berriz ere alokairua lehiaketan atera aurretik egokitzapen batzuk beharrezkoak dira irakiera baimena eskuratzeko. Kea erauzteko sistema, irristaduren kontrako tratamendua eta komunaren egokitzapena egingo dira. Lan

hau epe motzean egingo da, taberna berriz lehenbailehen zerbitzua ematen egon dadin. Inbertsioek aurrekontuaren %12,73 osatzen dute, guztira 746.235,46 €. Udaletik adierazi ditugutenez, aurrekontua "gaur egun osatuta dauden udal batzordeetan landu eta lehentasunak kontuan harturik adostu da" eta horren helburua da "udal programa betetzea eta lehentasunezko inbertsioei aurre egingo".

Beste amerikar bat sustraian bila

Lehenengo batean Argentinatik zetorren, oraingoan New Yorketik. Noizbehinka agertzen dira haien arbasoen jatorrien bila, batzuetan haien abizena herriaren berdina dela dakiten guztia izanik. Pertsona garen heinean, guztiok asetzeko dugun behar baten bila. Joe Beramendi du izen eta abizena eta emazte eta alabarekin izen bereko herrian agertu ziren. Joe eta Christine haien alaba Gabriela Madrilen ikasten ari dela probestuz gurera hurbildu ziren. "Harrituta geratu ginen paisaiaren edertasunaz eta Suitzarekin duen antza deigarria iruditu zitzaigun".

Herrian argazkia egiten eta buelta, baina familiaren sustraiak ezagutzeko gogo gehiagorekin zeuden: "Arturo Beramendi, Joeren aitona zena, 1900 aldera jaio zen (Basaburuan ez, behintzat.) eta Peru aldera joan zen bizitzera. Irakasle ibiltaria zen eta astoz bidaiatzen zen herriz herri. Halako batean ekaitz baten ondoren gaixotu eta gazte hil zen 1935. urtean". Basaburura egin zuten bisita "hunkigarria" iruditu bazitzairen ere, "etsipena" sentitu zuten kalean inor gutxi aurkitzean.

Eskualdera noizbehinka halako beharra duen jendea hurbiltzen zaigu. Ez al litzateke posible nolabaiteko zerbitzua sortzea jende hori laguntzeko?

Cannabis terapeutikoa, hitzaldia

Gure gizartean asko dira mito eta aurreiritziak. Urtez urte mantendu, berritu eta aldatzen dira. Marihuanaren kasuan, badirudi gizartean gutxika-gutxika bada ere, urtetan egon den irudia aldatuz doala. Erabilpen ludikora begira, Amerikako Estatu Batuetan legalizatu dute estatu batzuetan eta gurean hiri askotan sortu dira erretzaile taldeak. Legalizazioaren eguna geroz eta hurbilago? Baliteke.

Lehenengo Basaburuan antolatu zuten hitzaldi bat landare honen erabilpen terapeutikoaren inguruan, besteak beste, zenbait gaixotasun larriren tratamenduen ondorioak arintzeko. Gurera Carola Pérez hurbildu zitzaigun. Gaztetxoa zenean istripua izan zuen eta bizitza guztia ospitale ospitale ibili da, mina momentu oro jasanez. Urte luzez farmako boteretsuen "menpe" egon ondoren, Cannabisaren ondorio terapeutikoak ezagutu zituen. Gaur egun askoz hobe sentitzen da, fisikoki eta mentalki ere, "min fisikoa eramangarriagoa egiteaz gain, minarekin bizitzearen onartzean laguntzen baitu", esan zigunaren arabera. Aizarozko Kultur etxean koadrila ederra elkartu ziren haren hitzak eta esperientziak entzuteko. Eskualdetik eta kanpotik etorri zen jendea. Perezen bizi-esperientzia interesgarria da oso, eta hari buruz gehiago jakin nahi baduzu, doseemociones.com elkarteko webgunean informazio asko aurkitzen ahal duzu.

Zuhaitzak landatzen eskolaren alde



Ultzamako eskolaren 50. urteurrena dela eta hasi dira jada zuhaitzen landaketekin. Gure erredakziora, momentuz behinik behin,

Esperpentoa Sagardotegian

Berueten, otsailaren 27an, larunbata. Elurra dela-eta, herri horretako sagardotegitik bueltan zetorrela, bezeroz betetako autobus bat errepideko arekan blokatuta geratu zen. Herriko ostalua ireki behar izan zuten bertan jendeak beste autobus bat itxoiten zuen bitartean. Guardia Zibilen auto bat agertu omen zen baina ezer gutxi egin. Horraino gertatu zena.

Ondoren, hurrengo egunean, hasten da erokeria "mediatikoa". Espainiar hedabide askok Guardia Zibila ETako preso ohien bi autobus erreskatatu zituela esan zuten. Hedabideak, besteak beste, *El Mundo*, *Abc*, *20 Minutos*, *Deia*, *La Vanguardia*, *El Correo*, *La Razón*... izan ziren. Albiste faltsu honen sortzailea Na-

Odietan eta Larraintzarren egindako landaketen informazioa ailegatu zaigu soilik.

Gure partetik, jendea animatu nahi dugu landaketa horiek egitera eta gero argazki eta informazioa bidaltzera. Materiala bidaltzeko bidea honakoa da: apyma.sustraiak@gmail.com edo lurkomunikazioa@gmail.com helbide elektronikoetara idatzi. Bestalde, antolatzen ari diren lipdubaren grabazioaren egunak eta ordutegiak zabaldu dituzte. Tamalez, aldizkaria zure etxera ailegatzeko denerako eginak izango dira, Odietako kasua izan ezik, apirilaren 9an, goizeko hamarretan egingo baitute.

Eskolaren egunerokoa aipatzen ari garela, ez dugu ahaztu behar azkenik publikoa egin direla izen berriak. Pluralean diogu zeren bi izen desberdin jarri behar izan baitaie bi hezkuntza-ziklo desberdinak kontuan izanda. Azkenik, "Larraintzarko Ikastetxea HH-LH" eta "Larraintzarko Ikastetxea DBHI" izenak, hemendik aurrera ofizialak izango direnak.

varra.com hedabide digital berria dugu, Nafarroako eskuin muturrak Gobernuaren aurka joateko antolatu duen hedabidea. Hamarnaka hedabidek gezurra den albiste argitaratu zuten, gutxieneko baieztapen lanik egin gabe ere.

Hurrengo egunetan lekukoen ezeztapenak ailegatzeko hasi baziren ere, "esperpentoa" aurrera jarraitzen zuen oraindik, ustezko Guardia Zibil batek berretsi baitzuen erreskate hura, "berriro egingo zutela" esanez. Horretaz gain, esaten zuen bazekitela "preso ohi batzuek herri horretan afaldu behar zutela". Guri esan digutenez, zonaldeko herri batean bazegoen preso ohien afari bat, baina Berueten ez zen izan. Hau da hau...



Aitatxi eta amatxien **eguna** Xinbili-Xanbalan

Gaur egungo gizartean aitatxi-amatxiek duten papera aldatuz doa. Azkeneko urteetan, krisi ekonomikoa dela-eta, gora egin du haiek etxean lagundu beharrekoa, batez ere, biloben zaintzan.



Haiei lanaren **errekonozi-** mendu gisa, Xinbili-Xanbala haur eskolak antolatu zuen martxoaren 23an “Aitatxi eta Amatxien” egu-

na. “Egun zoragarria eta berezia” izan zela esan ziguten, “hain maitatuak ditugunak gurean egon dira, dena ikusi dute eta baita aitatxiren bat txirristatik bota da ere”.

Ultzamako haur eskolan halako eguna antolatzen duten lehenbiziko aldia izan zen, eta “errepikatze-ko modukoa” dela esan ziguten.

Goizean goizetik go-saria eskaini zioten etorritakoei, gelak ireki eta haurrek eskutik helduta gela batetik bestera eraman zituzten aiton-amonak, eta hamaiketako baten ondoren, goizeko hamaikak aldera normaltasunera itzuli ziren. Gure aitatxi-amatxien papera goraipatzeaz gain, haien arteko erlazioa sustatzea zuten he-

lburu. “Asko elkar eza-gutzen dute, betidanik Ultzamakoak baitira”. Haur eskolako langileek “oso pozik” zeudela esan ziguten: “Beraiek hainbeste aldiz eman dizkigute eskerrak, etortzeko aukera emateagatik, baina gu gara haiei eskerrak eman beharrean gaudenak, beti hor egoteagatik, bere laguntza musu-truk eskua hor egoteagatik gu erortzen garenean hartu ahal izateko”. Ideia polita izan dutena Xinbili-Xanbalakoek.

Buruzgain, **pilotaren** lehen mailara



mailan jokatzeari lortu du, onenen artean egotea.

Azken lorpena, bigarren mailako Espainiako txapeladun izatea. Labriten lortu zuten, eta banaka zein binaka lortu zituzten txapelak, Martikorenak banakakoan eta Goñi eta Garraldak bikoteka. Labriten izan zen finala martxoa hasieran, larunbat eta igandez, finalaurrekoak eta finalak Iruñeko pilotalekuan jokatu zituzten.

18 edo 22 tantora izan beharrean, 10 tantoko bi partida irabaztera jokatzeko dute maila horietan. Bi finaletan berdinketa hausteko jokatu beharrik gabe irabazi zuten ultzamar eta basaburuarrek, hau da, bi partida segidan irabazita.

Zein etxe mota nahi dugun jakiteko, galdeketa

Hirigintza proiektuak egin aurretik, Ultzamako Udalak, biztanleek zer nolako etxebizitza mota eta eredu nahi duten jakin nahi izan du. Horretarako inkesta bat igorri du Ultzamako etxe guztietara, eta jada jaso ditu bueltan.

Kokalekua, tamaina, prezioa, norekin bizitzeko, eresia edo alokatua, zenbat denborarako, hutsik dauden

etxebizitzaren inguruko iritzia... dira galderetako batzuk. Helburua hirigintza planak biztanleen beharretara egokitzea da, eta ez biztanleak hirigintza planetan egindako etxebizitzetara.

Hemezortzi galdera ditu inkestak, erraz erantzutekoak, 5-10 minutuan. Udalak jaso ditu jada inkestak, eta haiek aztertuta ikusiko dute etxebizitza berriak egiteko beharra dagoen Ultzaman. Eta egitekotan, biztanleen beharrei egokituta egiten dira.

Arrakastaz egin genion **harrera** Laburbirari



Laburbira, Film laburren zirkuitu ibiltariak martxoaren 16an egin zuen geldialdia Larraintzarren. 50 herri bisitatu ditu Euskal Herri osoan, eta gurean arrakastatua handia izan zuen.

8 film labur eman zituzten Larraintzarko bentan, 3 minutukoa motzena, eta 16koa luzeena. Jendearen erantzuna ona izan zen, 40 lagun inguru bildu ziren adin ezberdinetakoak: gazte, heldu eta helduagoak. Oso anitza izan zen, eta askotan garrantzitsua da aniztasun hori.

Ane Urkiolaren “Zea Bingo”, Iñigo Gaiton Gonzalez de Txabarriren “Erreplika”, Uda Filmsek egindako “Jorrai”, Yago Mateoren “Fishura”, The Arlotesen “Hartz Txiki”, Iker Azkoitiaren “Semeak”,

Aitor Gametxoren “Bere bizitzetako bat” eta Eriz Alberdiren “Brunilda”. Azken bi zuzendari hauek ezagunak dira jada gurean. Aitor Gametxo Arraitzen “Abaunzko beste mapa” grabatu zuen, eta dokumentala aurkezten egon zen bertan. Eriz Alberdi, azkenik, Laburbiraren edizio honetan aurkezpenera egitera etorri zen, eta elkarriketa polita sortu zen ikusleen eta zuzendariaren artean.

Izan ere, film laburrak ikustera joan zirenetako batzuk euskara ikasteko prozesuan ari dira, eta ez zuten euskara praktikatzeko zuten aukera hori galdu. Euskarazko filmak ikusteaz gain, Eriz Alberdi zuzendariarekin euskaraz jarduteko aukera izan zuten, eta ez zuten aukera pasatzen utzi.

Ultzama **laugarren** sokatira txapelketan



Kostata, baina finalera iristea lortu zuen Ultzamako kadete mailako sokatira taldeak. Oso aukera gutxiarekin iritsi zen Larraintzarren jokatu zen azkenaurreko tiraldira, baina lan onaren ondoren, sailkatzea lortu zuten.

Finala Berriozarren jokatu zuten, eta azkenean laugarren sailkatu ziren Nafarroako Kirol Jokoetan. Irabazle nagusia Sakanako Andra Mari taldea izan zen. Jokatu zituzten bost finaletatik lau irabazi zituzten; hiru proba konbinatuan eta bat sokatiran, kimu mailan.

Ultzamak kadete mailako sokatira finala jokatu zuen bakarrik, eta honetan Andra Mari ez, Basaburua Txikia izan zen irabazle azken tiraldian

irabazita. Bi talde hauen nagusitasuna nabarmena izan zen, bai sokatiran zein proba konbinatuan.

Giro ederra izan zen Berriozarko pilotalekuan jokaturako finalean, har mailak bete egin ziren. Familia eta lagunez gain, aurreko kanporaketetan lehiatu ziren kirolariak ere egon ziren ikusten, eta honela errez bete zen pilotalekua.

Esan beharra dago Ultzaman, Larraintzarko pilotalekuan jokaturako kanporaketan ere ikusle pila bat egon zela. Legeak ikusle kopuru mugatua ezartzen du, eta hortik aurrera ezin da jenderik sartu segurtasun kontuengatik. Horregatik familia, lagun eta kirolarietara aise betetzen da pilotalekua.

Muslari onenak, baxe nafarrak



Amaitu da Euskal Herriko VIII. Mus txapelketa. Urdiñarben (Zuberoa) jokatu zuten finala zazpi probintzietako 32 bikoterik onenek, eta

txapela Isturizko Manex Mouesca eta Martzel Caldeironendako izan zen.

Gurean, Basaburuan eta Ultzaman 5 kanporaketa jokatu ziren txapelketaren prozesu osoan, eta inork ez zuen finalera iristea lortu. Gertu bai, gertu gertatu ziren Eneko Legarra eta Alberto Arangoa, baina ez zuten lortu. Hala ere, Urdiñarbeko finalean izan ziren, Iruñeko bikote batek ez baitzuen joaterik izan, eta hauek ordezkatzu joan ziren.

Bikain aritu ziren finalean, eta azkenean zazpigarren geratzea lortu zuten, beraz, merezita finalera joan izana.



Historiaurreko aztarnak gurean

Begi hutsez ematen ez badu ere, historiaurrearen aztarnak ugari dira eskualdean. Baso zein larreetan, askotan lurrak estalita edo denborak desitxuratuta, baina trikuharri, zutarri, harrespila zein tumulu ugari aurki ditzakegu. Bi zonalde megalitiko banatuko ditugu serie honetan. Orain Odieta, Anue, Lantz eta Ultzamako zonalde megalitikoa aztertuko dugu, eta hurrengoan Atetz, Imotz eta Basaburukoa.

- Bixurdiñeta 1 ekialde | trikuharria
- Bixurdiñeta 2 iparralde | trikuharria
- Bixurdiñeta 3 hegoalde | trikuharria
- Giltzurri | trikuharria
- Kopagain | trikuharria
- Loiketa 1 | trikuharria
- Loiketa 2 | trikuharria
- Loiketa 3 | trikuharria
- Loiketa 4 | trikuharria
- Loiketa 5 | trikuharria

- Loiketa 6 | trikuharria
- Loiketa 7 | trikuharria
- Loiketa 9 | trikuharria
- Loiketako basoa | trikuharria
- Loiketako basobidea | trikuharria
- Matrakola | trikuharria
- Bixurdiñeta | tumulua
- Loiketa 2 | tumulua
- Loiketako lepoa | harrespila

- Arriurdiñeta | trikuharria
- Errebelu | trikuharria
- Indieta | trikuharria
- Irumugeta 1 | trikuharria
- Lanz-Amezti | trikuharria
- Loiketa 8 | trikuharria
- Sugesti 1 iparralde | trikuharria
- Sugesti 2 hegoalde | trikuharria
- Sugesti 3 erdialde | trikuharria
- Tuferburu 1 hegoalde | trikuharria
- Tuferburu 2 iparralde | trikuharria
- Xafran 1 hegoalde | trikuharria
- Xafran 2 iparralde | trikuharria
- Algorrieta | tumulua
- Algorrieta iparralde 2 | tumulua
- Amezti 1 | tumulua
- Loiketa 1 | tumulua
- Algorrieta 1 eta 2 | harrespilak
- Koxtaran 1 | harrespila
- Koxtaran 2 | harrespila
- Koxtaran 3 | harrespila
- Algorrieta | zutarria
- Irumugeta | zutarria

- Zumardena | trikuharria
- Oixotzarko gaina | trikuharria
- Pixotzar erdialde | trikuharria



- Ganbeleta | trikuharria
- Arpegi | trikuharria
- Aiztaluz | trikuharria
- Iraua 1 ekialde | trikuharria
- Iraua 2 mendubalde | trikuharria



- Arkatxu | trikuharria
- Arkatxiki | trikuharria








- Auzaldia | trikuharria
- Auzaldia gaina | tumulua

- Maxkar | trikuharria

- Arañotz 1 | tumulua
- Arañotz 2 | tumulua
- Arañotz 3 | tumulua
- Santa Luzia-Arañotz | trikuharria
- Arañotz | etxola ondoa

- Bordaondoa 1 | tumulua
- Bordaondoa 2 | tumulua
- Bordaondoa 3 | tumulua
- Bordaondoa 4 | tumulua
- Bordaondoa | etxola ondoa
- Bordaondoa mendebalde | tumulua



Bi etxalde handiren bukaera

Aurreko Pulunpen Berueteko Garaikoko etxaldearen hondamendia ekarri genuen. Eta hara nola diren kontuak, gereziak saskitik ateratzean bezala, bat atera orde elkarri lotuak purrusta bat ateratzen dira. Oraingoan aurrekoarekin loturik atera zaizkidan pare bat bereizi, eta hona ekarri ditut. Gainerakoak hurrengo baterako utziko ditugu.



Arrarasko Kastenea

ARRARASKO KASTENEA.

Arraratsen hor dugu *Kastenea*, etxalde famatua, etxe handia eta aspalditxoan hutsik dagoena.

XX. mendearen hasieran etxe honetako jabea Francisco Erbiti Azpirotz zen.

Hau bi aldiz ezkondu zen, lehenbizikoan, 1888. urtean, Casilda Arangoa Saldiasekin, Berueteko *Garaikoko* alaba. Bi ezkontza izan ziren batean, anai-arrebak anai-arrebekin, orde ez esaten dena.

Franxixko, alargundu eta bigarrenen ezkontza, berriz, 1903. urtean izan zen. Honetan Zarranzko *Karakoetxetik* ekarri zuen, alargun gazte-gaztea, 28 urtekoa eta umerik gabea, Josefa Beuntza Elizalde, berez Gartzarongo *Mitxotonekoa*. Aurrenekoarekin hiru haur zituen eta bigarrenarekin bat.

Ondasun handiko etxaldea, *Kastenea* eta bere

borda, *Zauleko* borda-eta Arraratsen, eta *Errieta* etxaldea Igoan. Esan duguna, etxalde aberatsa.

IGOAKO KARAKOETXEA

Beste etxaldea, Igoako *Karakoetxea* dugu. *Karakoetxea* 1805eko eguberri bezperan erre egin zen, erabat kiskali, eta berri-berria egin zuten berehala. Etxea altxatzeko diru aski ez eta 1807. urtean 200 dukat hartu zituzten lanak pagatzeko. XX. mendearen hasieran Antonio Barberia Etxeberria zen nagusia. Hiru alaba eta seme bat zituen. Migel mutikoa, denetan gazteena zen, baina oraindik muttiko, 1900. urteko Erroldako zerrendan aurreneko puntan jarria zuten. Nagusi izateko pentsatua ia?

Hau ere izugarritzko etxaldea zen, *Karakoetxea*, *Etxezarrea*, *Irazabalgo* borda...

HASERREA

Eta 1914. urtean bi etxe hauetako hariak gurutatu ziren.

Abuztuaren bian, Kastene idiak uztarrian lotu eta bere gurdiaekin joan zen Igoako Arrizuriko sorora eta *Karakoetxeko* alorretik pasatzen hasi zen, bidean zanja bat zegoela eta. Eta bertan izaki Migel, mutil egina, 24 urtekoa, bizkorra. Eta lehenbiziko hitza:

-Noa goaie gue alorriin barna?

Eta han hasi zitzaion Franxixko azalpenak ematen, baina gauzak ez ziren nonbait errazak, eta laster, biak oihuka eta oihuka. Azkenean, arroitua eta haserrea lehertu eta elkarri heldu eta iraunka, biak ezpon-

da batetik erori eta Franxixkok min hartu zangoan. Hanka batean zauri koxkor bat zuen, baina okerrago zena, ezin ibili. Hezur bat hautsia, peronea deitzen dena.

Garai hartan hezurak bere lekuan jartzeko eta lotzeko, Ilarregin bazen sorgin edo sendatzaile gisako bat, oso-oso famatua inguru honetan guztian, Martina Ezkurra Oitz, Kokotxeko etxeoandrea.

Eta hara eramane zuten eta honek hezurak ustez ongi jarri ondoren, ukendu bat eman zion, egunero egunero zauria edeki igurtzeko. Eta hartatik, gaixtatu eta irailaren 13an hil zen septizemiak jota, hau da, gorputzeko odola pozoindu zitzaion zauritik.



Igoako Karakoetxea. Azpiko aldetik itsatsia, Karakoetxeberria.

KASTENEA MAISTARRETXE BIHURTUA

Beraz, heriotza gertatu zenean, Josefa alarguna, hiru umerekin gelditu zen etxean, bi haur bere senarraren lehen ezkontzakoak eta hirugarrena berea. Beraz, hiru ume, zeren laugarrena eta denetan zaharrena, Joakina, gertaera latz honen aurrettoan ezkondu berria baitzen Beruetera, *Okelako* Dionisio Rekondorekin.

Dena dela, zoritxarra ez zen honetan bukatu, etxean gelditutako hiru horietako bi gazterik hil baitziren, oso gazterik. Lehena, Angel Erbiti Beuntza, 14 urtetan epilepsia atake batetik, eta Martin Jose Erbiti Arangoa 26 urtetan, tuberkulosiak jota.

Orduan etxalde honen jabetza Berueteko *Okelatarrren* eskuetara pasa zen. Geroztik, beti maistarrak izan dira etxe honetan. Azkena, Jose Luis Leziaga, eta aurretik bere senide eta gurasoak, gutxienez 1936tik hona. Aspalditxoan hutsik dago etxea.

IGOAKO KARAKOETXKO ARRAZAREN BUKAERA

Igoako *Karakoetxean* gelditu zen nagusi aipatu dugun Migel hori, baina honek ere, 1932an izan zuen heriotza zorigaitzokoa eta bere arreba Martinak hartu zion segida. Hau neskazahartu eta *Otsanbelatik* iloba bat ekarri zuen, Trinidad Urritza Barberia, etxeari segida emateko. Hau ere neskazar hil zen. Honen ondorengoek, *Etxezaharrea* Pedro Miguel Arregiri saldu zioten eta *Irazabalgo* borda eta Goiko borda Telletxeatarrei. Ondarrean, *Karakoetxea* eta gelditzen ziren lur guztiak saldu zituzten Leontzio Huarte Altsuari. Honek, etxe guztia behar ez eta Antonio Mariezkurrena kontratistarekin adostu eta etxea birmoldatu eta sei etxebizitza egin eta saldu zituzten.

Eskerrak honi eta Antoniori, sei bizitza horietako laueta 4 familia bizi dira eta beste bitara asteburuetan etortzen dira, eta ez da gutxi.

IGOAKO KANPOSANTUA

Don Fermin Iriarte Otxotorena, Igoa eta Arraratsen apez egon zen urtez askoz eta 1930. urtean Etxalekura etorri zen. Hala ere ez luzerako, 1942. urtean hil baitzen bat-batean 78 urtetan.

Kontua, zera da, Etxalekura etorri eta laster, Igoan, kanposantu berria egin zutela.

Eta Igoako kanposantuaz hara zer zioen: Kanposantua heritik kanpo egin herriak eta nork estreinatuko eta *Karakoetxeko* nagusiak! Honek bere burua hil zuen tiroz. Izugarritzko pena

izaten omen zuen apezak!

Eta nor genuen *Karakoetxeko* nagusia? Ba, gaur hizpidera ekarri dugun Miguel Antonio Barberia Iriarte, 1914. urtean burrukan ibili zena Francisco Erbitirekin, Igoako eta Arrarasko mugaldean, *Arrizurin*, hain zuzen.

Migelek, 42 urte zituen hil zenean, mutilzaharra, eta eskopeta hartu eta heritik 300 metrotara joan eta bertan tiro eman zion bere buruari, *Sagardimendi* dermion. Goizeko hamaikak ziren, 1932ko martxoaren 2a, asteazkena.

HIZTEGIA

DUKAT: Ducado. Urrezko txanpona. 11 erreal balio zuen.

ERROLDA: Padron.

Arroitu: *Hizketa zalapartatsua*.

Igurtzi: untar

Gaixtatu: Gaiztotu

Pozoindu edo pozoiu. Enbenenatu

“ Hilabete hauetan guztietan bakarrik igandean izaten nuen festa”

Edo behintzat, orain arte ikaslea zen, baliteke aldizkari hau irakurtzen duzunean nonbaiten lanean egotea. Kontua da sekulako emaitza onak atera dituela Amaiak B.I.R azterketan, biokimika ikasten dutenen azken azterketa. Egunkarian irakurri genuen bere izena eta berarekin solasean egon gara. Etxe askotan ezaguna da udetan Ultzamako haur askori klaseak eman baitzizkien Amaiak. Pertsona berritsua eta alaia, Larraintzargo ostatuan hitz egin genuen berarekin.

800 pertsona aurkeztu zineten eta oso plaza gutxi zegoen...

Estatu mailan 33 plaza besterik ez zegoen. Medikuek eta farmazeutikoek plaza asko dituzte, guk proportzioan askoz gutxiago ditugu. Urtero gauden esperoan zenbat plaza aterako zain. Uztailen hasi nintzen ikasten, zazpi hilabetez egon naiz gogor ematen. Asteko egunetan ikasi eta larunbatetan azterketa-simulazioak egiten genituen, lauzpabost orduko azterketa da, 225 galderakoa.

Test modukoa nahiago?

Ez dakit ba... kasu batzuetan aukeraketa egitea oso zaila da eta zalantza handiak sortzen zaizkizu... hainbeste orduko azterketa batean garrantzitsua ere bada zer-nolako banaketa egiten duzun, hau da, nola banatu denbora eta edukiak. Nire kasuan hobekien kontrolatzen nuenagatik hasi nintzen eta gero zailena egin nuen, nolabait segurtasuna hartzeko hasieran eta indarrez hartzeko zailena.

Orain lasaiago egongo zara, ezta?

Han-hemen nabil zein lekutan lan egingo dudan ikusteko; baina tira, orain disfrutatzeko garaian nago. Lehengo asteburuan, adibidez, sagardotegian egon nintzen lagunekin. Hilabete hauetan guztietan igandean izaten nuen festa bakarrik eta ez nuen parrandarik egiten ze ateratzen bazinen, ez zenuen hurrengo egunean ezer egiten. Azterketa bukatu eta lehenengo parranda Lanzko ihotekoa izan zen.

Psikologikoki oso fuerte izan behar zara, ezta?

Bai, zu zeuk eraman behar duzu aurrera prozesu osoa, nahiz eta familiak asko lagundu. Diziiplina eta indar handia behar da, demagun udan, lagunak, “goazen hondartzara” edota “goazen ez dakit nongo herriko jaietara” esaten dizutenean eta ezin... Nire kasuan Iruñean nengoen eta Mendebaldeko liburutegira joaten nintzen ikastera, behintzat hor baduzu leiho handiak paisaia begiratzeko... Azken hilabetekoa izan da denboraldirik okerreana: abendu eta urtarrilean. Zalantzak sortzen zitzaizkidan... “eta ez badut ateratzen”

pentsatzen nuen askotan... Gure azterketa ez da irakasleen oposizioak bezalakoa, ez baduzu ateratzen ez duzu ezer lortzen, ez zara halako “lan zerrenda” batean sartzen... Hurrengo urtean berriz aurkeztu behar. Nire bi pisukideak kanpo geratu dira, adibidez.

Presioa maneiatzeko nola egin zenuen?

Azkeneko egunetan gurasoenera itzuli nintzen. Eta ikusi behar zenituen gaixoak; ezin zaratarik egin, zapatekin kontu handiz ibili behar... Memoriariaz ikasi behar zenituen kontu asko gainera: ezin ikasi modu “logiko” batekin... Horrek zailtzen du oraindik gehiago kontua... Arau nemoteknikoak erabiltzen genituen askotan: ilogikoa den zerrenda bat ipuin bat bezala lotzen duzu, ikasten errazago izateko. Halakoak ikaskideekin elkarbanatzen genituen eta ni behintzat lagun bat eramaten dut azterketa hilabete hauetatik. Eta ez pentsa erraza denik, lehiakortasuna oso handia baita. Lagunaren kasuan, gainera, berak ere plaza atera du.

Agurrak, diosalak eta olesak (4)

Gaurko egunean, bidean, tabernan, bilkura batean... norbaitekin topo egitean, ohikoa da Egunon! Atsaldeon! eta horrelakoak ibiltzea. Eta diot, oso zabalduta dagoela agurtzeko modu hau, baina banuen halako susmo bat ez zela horrela aspaldian. Gure zaharrei ere horrelakorik gutxitan entzun izan diet nik.



Manuel Garbisu Barberia zena, Muskizko Martieneko nagusi izana, 1980. urtean hil zen. Ordutik gizon-emakumeek bezala, agurtzerakoan, agur-patxadatsua egiten zekiena, etxekoez galdetuz eta, Esan nuke Manuel oraindik gehiago zela. Eta gainera, nahiz jende gaztetoei mintzatzen hasi, ez ziren horrengatik beretzat gutxiago merezi zutenak agurtzeko orduan.



Eta nire susmoa egiaztatzerako dator lehengo egun batean Sautrela Euskal Telebistako saio ederra ikusten ari nintzela, Txomin Peillen idazle zuberotarrari entzun niona.

Peru eta Ekuadorko kontuez ari ziren programa horretan. Ameriketaz eta bertako hizkuntzez eta batez ere kitxua hizkuntza oso toki zabalean mintzatzen denaz. Elkarriketatzailerak hala galdetu zion:

-Kitxuaz nola esaten dute, esaterako, egunon?

-Buenos días, gazteleraz esaten dute. Zuberokan ere ez zuten esaten egunon!

-Nola esaten zuten bada?

-Agur, elkarrekin topatzean. Eta adio, despeditzerakoan.

Nolanahi gisa, gaurko egunean oso sarturik dago, Egunon jauna! Eta Atsaldeon andrea bezalakoa.

Eta honen erantzuna, berriz, Baita zuri ere da. Gure gurasoek-eta Igualekin erantzuten zuten. Seinale kitxuak bezala, egunon ez zutela erabiltzen. Gazteleratik hartu zutela Buenos días eta Igualekin hitzak. Gero lehenbiziko hitza itzuli zuten euskarara baina bigarrena horrela geldituko zen, berean, Igualekin.

Baina diosala, buenos días horretan gelditza oso motz zeritzoten. Eta horrek behar du butana. Eta bat baino gehiago gainera. Adibi-

dez, ezezagunak elkarrekin topatzean, nik, Larraun, Ultzama, Baztanen...entzun dudana hau da: Nongoa zattugu? Edo, Atrebenzie ez'pada, nongoa zattugu? Egunonetik berehala edo oso hurbil eta ez hizketaldi luzearen ondoren.

Nongoa zara galdetzea besterik gabe gogorra da, baina Nongoa zaitugu, berriz oso goxoa da. Eta dotorea, nongoa zara baino koska bat kultuagoa da.

Esan dugun bezala, Iparraldean oso normala da, adibidez, nonbait sartzean eta, Agur, edo Agur andreak...ibiltzea. Eta erantzuna, ongi etorri da (1).

Gaurkoz aski dugu eta hurren artio esan behar dugu elkarri, irakurle maitea. Hori bai, tragoxka bat ardo frexkorekin egingen dugu topa. Zure osagarri! (2)

Ea hurrengoan agurtze kontu honekin lasai-lasai segitzen dugun.

(1) Ongi etorri, horrela ibili behar da, ongi etorria lagun bati egin edo ehuni egin. Hala ere, “ongi etorriak” eta ikusten ditugu bazterretan Ongi etorri erabili beharrean.

(2) Hire osagarri! A tu salud! erdaraz. Iparraldean oso ezaguna da topa egiteko formula hau.

Anuek badu alkate berria

Kostata izan bada ere, azkenean gobernu taldea eratu da Anuen. Ez maiatzeko hauteskundeetan, ez abenduko bigarren aukeran ere ez zen zerrendarik aurkeztu alkatetzara. Horrek alkate eta udal gobernu gabe uzten zuen udala, alkatetzarik gabe geratu zen Nafarroako udalik handiena gainera.



Legeak dio bigarren aukeran inor aurkezten ez bada, kudeaketa gobernu gestora baten eskuetan geratuko litzatekeela, baina hori ere eratu beharra dago.

Bi aukera zeuden orduan: Nafar Gobernuak kanpoko talde kudeatzaile bat izendatzea, edo bertako bizilagunek eratzea. Azken hau egin dute.

Sortua zuten abenduko hauteskundeetara aurkezteko zerrenda bat. Baina hainbat kontu falta zirela eta, atzera bota zieten, eta ez zen zerrendarik izan Anuen. Orain, udal gobernu izan beharrean gestora bat izan arren, praktikoki eskumen berak izanen dituzte.

Hauxe dira alkatetzarako aurkeztu zen taldea: Maider Otxandorena Cilleros, Ignacio Goñi Moratinos, Zoila Torres García, Iosu Ostiz Subiza, Clara Goñi Ugarte, Javier Larraioz Rodriggez eta Patricia Uriz Iriarte.

Maider Otxandorena izanen da alkate berria. Ez da Anuen bizi, baina 2003an erosi zuen etxea Olaguen eta astero zein oporretan beti egoten da bertan. Zazpietatik denbora gehixeago duena da, eta, beraz, bera alkate. Nabarmenduko dugu Anuek alkate euskalduna duela aurrerantzean. Galdera batzuk egin dizkiogu:

Nola hartu zenuten taldetxoa eratu eta udalean sartzeko erabakia?

Bada, gu sartzen ez baginen ez zen inor sartuko. Eta edonor sar daiteke, kanpoko jende ezezagua

na ere. Orduan batzuk elkartu ginen eta listo, hemen gaude.

Nola egin zenuten hori?

Maiatzeko hauteskundeetan ez zen inor aurkeztu, gero abendukoetan guk taldea eta paper guztiak egin genituen, baina Madrildik atzera bota ziguten zerbait falta omen zelako, beraz udal talde gisa sartzea ezinezkoa izan zen. Orain gestora- ren azken aukera hau geratzen zen, eta hor sartu gara. Ezin genuen utzi edozein gestora sartzen.

Nola hartu zenuten zu alkate izatearen erabakia?

Momentu horretan langabezian nengoen ni, eta besteak lanean. Orduan, bagenekien ordu asko sartu behar zirela udal honetan, lan handia zegoela, eta ni nintzen denbora gehien sar zezakeena.

Eta nola zabilzate, lan eta lan?

Bai, martxoaren 3an sartu ginen, eta gauza asko ditugu esku artean

Zein gai garrantzitsu dituzue orain?

Esaterako, Anueko udal planarekin gabilitza orain. Martxan jarri zen bere garaian, gero gelditu, eta orain berriz ere mahai gainean jarri da. Ul tzanueta ur mankomunitatearen gaiekin ere bagabiltza. Lan asko dago hor; berritze lanak egin behar dira herrietan, eta lehen fakturak ere iristen ari dira, lehen baino garestiagoak. Beraz, gai honi heldu beharko diogu. Eta beste hamaika kontu txiki.

NATXO ESTEBAN, UDABEKO SEMEA ETA ARALAR MUSIKA ESKOLAKO IRAKASLEA

“Kanpoan ikasitakoak gero hemen aplikatu ditut”

Iruñean entrenatzen harrapatu dugu Natxo, azkenaldian “Crossfit” egitera guztiz “engantxatua” dagoela aitortu digu. Iruñean bizi da, eta handik hona ibiltzen da egunero gure eskualdetik musika eskolako irakasle baita. “Urrezko Orrazia” ikuskizuna aurkeztu berri dute eskolako 120 ikasle baino gehiagorekin. Horri buruz eta bere bizi-esperientziei buruz hitz egin dugu lerro hauetan.

Kirolaria zara, hortaz.

Ez naiz sekula kirolaria izan, baina duela urtebete hasi nintzen “Crossfit” kirola praktikatzeko eta orain guztiz “engantxatuta” nago. Egutero nabil izerditan eta gaizki pasatzen kiroldegian... Kirol honek militarren entrenamenduaren antzekoa da; denetarik aurki dezakezu: halterofilia, ariketa gimnastikoak, aerobikoak, korrika eta halakoak egiten dira... egutero gauza desberdinak egiten dituzu, taldeka egiten da, dibertigarria da, jendea ezagutzen duzu...

Hori bai, profesionalki musikaren munduan sartuta zaude, Aralar Musika Eskolan irakasle zara eta ikuskizun bat egin duzue. Konta iezaguzu.

Musika Eskolan urtero antolatzen dira istorioak: normalean kontzertuak izaten dira, baina beste batzuetan dantza eta antzerkia ere sartu izan ditugu. Aurten pentsatu genuen zerbait berri egitea, berezia. “Urrezko orrazia” da ikuskizunaren izena, euskal mitologiarekin girotutako abentura bat. Ipuina nik idatzi dut, baina tira, ez naiz idazle, eh? Esperientzia izugarri polita izan da.

Zein da ipuin horren haria?

Lua da neskato protagonistaren izena. XIX. mendeko neskatxa honen herrian gauza arraroak gertatze ari dira: hilabete batzuk euria egin gabe darma, ardiek esnerik ez dute ematen... Luak erantzun bila etxetik alde egitea erabakitzen du, eta gertatzen zaiona egunkari batean idazten du. Abenturaz abentura, Mari desagertu dela jabetzen da, horregatik dago natura desorekatua. Geroago, Mari bere orrazia galdu duela konturatzen da... Abentura honetan jentilak, Tartalo, sorginak, lamiak eta halako asko agertzen dira..

Nola gorpuztu zenuten ipuin hau?

120 haur kantarik hartu dute parte eta 20 irakaslek. Gaztelaraz esaten den bezala, “la lié parda”, kar-kar. Eszenatokian abesbatza hasten da eta besteak gutxika-gutxika sartuz doaz, argiak eta halakoak genituen... Bestetik musikariak zeuden, zuzendaria eta ni narratzaile. Dena bideoan grabatu zuten eta ilustrazio bidez pertsonaiak txertatuko ditugu bideoan. Ikuskizunean sartu nahi genituen, baina aurrekontuak ez zuen ematen eta guztion irudime- nean egon behar...

Lan gogorra eta luzea izan behar du, ezta?

Abuztuan hasi ginen ideia lantzen, errepertorioa aukeratzen... Ikasturtearekin batera hasi ginen ikasleekin lanean Lourdes eta biok. 6 udaletan lan egiten dugu eta partaide guztiak bitan bakarrik elkartu dira. Lana gogorra bai, baina jasotzen ari ginela pentsatzen hasi ginen “hurrengo urtean egin genezake eta ez, ez, ez... orain deskantsua behar dugu...” eta momentuz lasai gaude; baina, badakizu, burua bere kasa doa. Guk nahi dugulako sartzen gara halakoetan... Kar-kar

Udabeko semea bazara ere, handik hona ibili zara, ezta?

Hala da, duela hamar bat urte sartu nintzen musika eskolan eta oso gustura nengoen. 26-28 urte nituela esan nuen “ze, ¿ya está?”, halako bizi-zalantzak sartu eta kanpora joan nintzen “a la aventura” eta zorionez oso gustura egon nintzen. Bertan, “Pocahontas” musikaren musika eraman nuen aurrera, Kabaret baten musikaren konponketak ere egin nituen...

Egia esan oso gustura egon nintzen eta asko ikasi nuen. Kanpoan ikasitakoak gero hemen aplikatu ditut.



Zurgai 20 urte

Duela 20 urte hasi ziren Peio eta Manolo Kañamares, Arbizuko Jose Ignacio Floresekin batera herri kirola plaza guztietara eramaten. 20 urte pasa dira dagoeneko, eta bi hamarkada hauetan egindako guztia ospatzeko ekitaldi polita egin zuten martxoaren 29an Aroztegin, Peio eta Manoloren herrian.



egin zuten ospakizuna. Kirolariendako entrena-
mendu gisa ere balio izan zuen goizeko ariketak,
eta gero denak elkarrekin bazkaria egitera joan
ziren. Egun horretaz gain, Zurgai herri kirol taldea-
ren 20 urte hauetaz hitz egin dugu Peio Kañama-
rekin.

Hasieran txapelketak eta erakustaldi zenbait
egiten hasi ziren Ultzama aldean eta Sakanan. Ha-
sieran zaila izan zen erakustaldi gehiago egitea,
berria baitzen haien taldea, baina pixkanaka lortu
zuten herri ugartan egotea urtero. Haurrendako
materiala ere prestatu zuten, herri kirolera gertu-
ratzeko asmoz eta kirol honen etorkizuna ziurtat-
zeko helburuz.

Honela, Euskal Herriko geografia osoa ze-
harkatu dute, herriz herri, plazaz plaza. Orain,
urtean 25-30 erakustaldi egiten dituzte, eta txape-
lketak ere bai. Azkenaldian, krisi ekonomikoaren
ondorioz, eta udalen murrizketen ondorioz, gutxia-
go deitzen dituzte, edo joatekotan pertsona gu-
txi joaten dira, gastua txikiagoa baita. Aurreneko
urteetan 8-10 lagun joaten ziren, baina orain hiru
joaten dira gehienez. Hala ere, gehiago joaten dira
batzuetan, etxean entrenatu beharrean, plazan
ederki entrenatzen baita, jendaurrean.

Herri kirolaren egoeraren inguruan Peiok dio
gorabeherak izan dituela: "Garai batean nahiko
indartsu ibili zen, moteldu egin zen gero, eta ora-
in ematen du mugimendu gehiago dagoela berriz
ere". Erronkarik handiena 16-20 urte arteko gaz-
teetan omen dago, zaila da herri kirolarekin kon-
promisoa hartzea Peioren ustez.

Horrela izan arren, ematen du Kañamaresta-
rren belaunaldia berritzen ari dela. Peio eta Ma-
noloren marka guztiak hautsi dituzte gazteek, eta
bide egokian jarraitzen dute Julen, Imanol, Xuban
eta artista guzti horiek. Horretarako aitzakia ere
badu Peiok: "Entrenatzeko modua asko aldatu da,
lana entrenamenduarekin uztartzeko modua, ikas-
teko modua... guk gure kabuz ikasi behar izan ge-
nuen, eta ahal bezala entrenatu. Gazteek ikasteko
modu hobea dute, nork irakatsi izan dute".

Ondorengo belaunaldietan ziurtatua dago erre-
leboa Zurgai herri kirol taldean, beraz, beste bi ha-
markada behintzat beteko dituztela esatera ausar-
tuko ginakeke.



Herri kirolaren modalitate ia guztiak izan zi-
tuzten Aroztegiko erakustaldian: aizkora, ar-
pana, txingak, lokotxak, harri-jasotzea, zaku
lasterketa eta abar. Ez soilik erakustaldi moduan,
baizik eta modu parte-hartzailean. Ez ziren gutxi
izan arpanarekin zein harriekin ausartu ziren gazte
eta ez hain gazteak.

Herriko jendearekin zein kanpotik etorri zenarekin

MARIA LARRAÑETA OIARTZUN, "PAISATGE" ENPRESAKO BURUA

"Nongoa naizen? Errepidekoa esango nuke"

Aitzoain, Bartzelona, Menorca... kanpoan denbora ugari eman ondoren, aiton-amonen
etxera itzuli da orain, "Paisatge" enpresa paisajistikoa sortuta. Izena katalanez, denbora
luzez bizi izan baita bertan. Krisiak zuzenean jo arren lanarekin jarraitzen du.

Gaskuen bizi zara orain, baina ez zara bertan jaioa, ezta?

Ni Aitzoainen bizi izan naiz txikit. Aita bertakoa
zen, eta ama zonalde honetakoa. Gaskuen denbora
luzez bizi izan zen, baina amona Larraintzarkoa zen,
Gartxeniakoa; eta Aitona Beuntzakoa. Ezkondu eta
Gorrontza joan ziren bizitzera, bertan izan zituzten
seme-alabak. Gero Leazkuera joan ziren, eta bertatik
Gaskuera.

Asko mugitu ziren ezta?

Bai, baserriz baserri joaten ziren errentan. Lanaren
arabera mugitzen ziren. Ni hemen bizi naizen etxean
bizi izan ziren, nire ama ezkondu zen arte.

Aitzoainera joan zen orduan?

Bai, aita Aitzoaingoa da. Santurbeko erromerian
ezagutu ziren, Xulapain eta Berriobeitiko jendea
ere joaten zelako erromeriara, eta behin ezkondu-
ta Aitzoainera joan zen ama. Orduan ni Aitzoainen
jaio eta bizi nintzen, baina aiton-amonak Gaskuen
genituen, bizi erdia Aitzoainen ematen genuen
eta beste erdia Gaskuen. Beraz, errepidekoa nai-
zela esango nuke, Aitzoain eta Gaskue artean den-
bora dezente eman baitut.

Lana egiteko kanpoan ikasi behar izan duzu ezta?

Landa ingeniarietza ikasi nuen Iruñean, eta gero
Bartzelonara joan nintzen paisajismo ikasketak egi-
tera. Beraz, konparatu Bartzelona eta Gaskue. Bai-
na beno, asteburu asko bueltatzen nintzen eta jakin
nuen aldaketa handi hori ongi eramaten. Bertan lau
urte egon ondoren Menorcara joan nintzen eta nire
enpresa sortu nuen. Katalanez jarri nion izena, "Pai-
satge".

Eta gero Gaskuera?

Bertan lan egin ondoren Gaskuera bueltatu nintzen
2009an. Etxea zaharberitu genuen, eta bulegoa sa-
baian jarri genuen. Jendea kontratatzen hasi nintzen
2006tik aurrera, eta 6 langile izatera iritsi ginen. Bai-
na 2010-2011n, krisiaren eraginez enpresa murriztu
behar izan genuen, eta bakarrik geratu nintzen berriz.

Eta, honetaz gain, Gaskueko alkate ere bazara.

Bai, eta bi seme-alaben ama. Lana gehienbat etxean
egiten dut, orduan kontu hauetara egokitzeko auke-
ra dut. Gaskueko alkate ere banaiz eta Santurbeko
baselizaren erabilera berrietarako boluntario taldeko
kide. Nik uste nire lanak, gauzak egiteko gogoak, bul-
tztatzen nauela bizi naizen lekua hobetu eta hainbat
kontutan parte hartzeko.

Enpresan aldaketa handia izan duzu krisiaren eraginez.

Lehen, sei geundenean kudeaketa lana tokatzen zi-
tzaidan bereziki. Etxean lan egiten genuen denok,
eta lan asko zegoen bereziki Nafar Gobernuaren eta
Arabako Diputazioaren eskaerak. Enpresa ugari zeu-
den lan hauek egiteko, eta krisia etorri zenean lana
izugarri jaitzi zen. Orduan berriz ere autonomo izatera
pasa behar izan nintzen, egoera zaila zen, baina niri
lan hau gustatzen zait eta ez nuen guztiz utzi nahi.



IGNACIO LLORET, AROSTEGIKO BIZTANLEA ETA IDAZLEAREKIN HITZ EGIN DUGU

Hiru urte, **Hiru** liburu



Nola iritsi zinen Arostegira bizitzera?

Arostegin bizi naiz 2005eko otsailetik. Nire emazteak eta biok herriko etxe baten bila ari ginen eta orain bizi garen hau aurkitzeko zortea izan genuen. Bailara hauetako paisaia gustatzen zait; hala ere, lehendik ere ezagutzen nituen beste garai batean behin baino gehiagotan bizikletaz ibilia bainintzen hemendik.

Zerk eraman zaitu Berlinera?

Berlinen bizi izan nintzen 2009 eta 2011 urteen artean, eta ordudunik maiz joaten naiz hara, bakarrik edo emaztearekin. Han ematen ditut aste batzuk urtean. Hiri bikaina da, eta, nire kasuan, gainera, kontrapuntua da Arostegin eramaten dudana bizi-moduarekin alderatuta.

Nola sartu zitzaizun buruan idaztearena?

Bokaziozko idazlea naiz. Beti izan dut argi liburuak idatziko nituela.

Azken hiru urteetan hiru liburu. Lan asko ez?

Bai. Orain azken hamarkada honetan idatzi dudana ezagutarazten ari naiz. Nire asmoa da urtero liburu bat argitaratzea. Halako prozesu batean nago non liburu bat zuzentzen dudana bitartean beste bat idatzi, argitaletxearekin hirugarrena prestatu eta argitaratutako laugarren baten promozioa egiten dudana. Hori da, ahal den neurrian, eraman nahi dudana dinamika.

Esanen diguzu zerbait hiru liburu horiei buruz?

Argitaratu ditudan azken hiru liburuak dira *Tu alma en la orilla*, narratiba garaikideko lana, bikote harreman baten historia zazpi urtez eta hogeitahondartzetan barrena; *El hombre selvático*, puntu komikoa eta balada erritmoa duen eleberria gaur egungo Nafarroari buruz; *Gu esperantza gisa*, narratiba garaikideko lana, autobiografia itxurakoa, baina gure ingurune sozial eta kulturalako edozein izaten ahal dena.

Badakigu duela hiru urte zure herrian literatura jardunaldi batzuk antolatu zenituela, zer diozu horri buru?

2005etik, Arostegin, literatura topaketak antolatzen ditut, kontaketa generoa ardatz dutenak. Jardunaldi oso bat da, oso trinkoa, non Nafarroan bizi diren zenbait idazle nire etxean elkartzen garen gure kontakizunak irakurri eta prosa mota horri buruz eztabaidatzeko. Saioen artean, basoko ibilaldiak eta Lizasoko Orgi jatetxean bazkari bat egiten ditugu. Azken edizioa 2015eko urriaren 17an izan zen. Ekitaldi pribatu horretatik harago, nire asmoa da bailara hauek nolabaiteko enklabe literario publiko bihurtzea, hau da, halako leku bat non etengabeko literatura ekintza eta jarduerak antolatzen diren, hala nola, tailerrak, hitzaldiak, liburuen aurkezpenak, hitzaldiak ikastetxeetan, liburutegietan eta irakurketa klubetan. Nire ustez, eskualde honek potentzial hori oraindik ustiatu gabe dauka.



Kirolak

Gailurretik hurbil-hurbil

Denboraldi bikainaren ondoren, La Unikako neskek hirugarren postutik tantu bakarrera geratzen dira



Sentimenduak halakoak dira batzuetan, kontrolaezinak. Buruak gauza bat esaten badu ere, tripek beste zerbait adieraten dute. La Unikako neskek inoiz baino denboraldi hobea egin dute, “ezin hobea”, eta apirilaren lehenengo asteburuan Valladoliden jokatu zen igoera fasean azkenengo partidaren, azkenengo momentuan, hirugarren postutik jaurtiketa bakarrera geratu ziren.

Aurtengo denboraldia bikaina izan da La Unikakoendako. Gogora dezagun talde horretan eskualdeko hamar bat neskek parte hartzen dutela, horietako erdia edo, nahiko gazteak oraindik. Taldeko jokalariek batek kontatzen zigun ligan ez zutela partida bakarrik galdu eta oso gutxi jaso dituztela kontrari. Horretaz gain, aurtengo sortu

berri den Amaier Kopa irabazi dute: “Ezin daiteke gehiago eskatu”.

Nesken errugbian Euskal Liga eta Amaier Kopa irabazi ondoren, maila gorenera igotzeko fasea asteburu bakarrean jokatu zen Valladoliden. Ekipo guztia bertara bidaiatu eta hiru partida jokatu zituzten. Ohikoak baino motzagoak ziren partidak, eta azken partidaren, luzapena eta futboleko “penaltiak” izango litzatekeen momentuan, laugarren geratu ziren.

Hori da sentimenduekin gertatzen dena: lehenengo momentua garrantzia izaten bada ere, denborarekin lausotzen dira eta arrazoiak aurre hartzen dio. Denboraldi bikaina osatu dute, eta etorkizun handiko taldea da. Zorionak!

Giro ezin hobea Ultzamako Duatloian

ohikoa den bezala, maila edo kategoria bakoitzaren luzera desberdina izan zen.

Goizeko 11:00etan hasi zen probarik gazteena, benjamin-aurrekoak, 19 txikik parte hartu zuten; ordu laurden beranduago benjaminak atera ziren, 37 ume; 48 izan ziren alebin kategorian, eta 12:00etan heldu zioten probari; parte hartu zuten 30 infantilek 12:45ean hasi eta 13:45ean bukatu zuten. Kirol teknikariak aipatu digu Nafarroako Kirol Jolasetan ez dagoela ez irabazlerik ez galtzailerik. Arratsaldean helduendako txanda zen 88 ausartekin.

Haien artean Serafin Zubiri abeslari ezaguna. It-sua bada ere, kirol erronkak asko maite dituen gizona dugu. Zubirik bere gidaria lagun bete zuen proba. Arratsaldeko 4etan hasi eta sari banaketarekin bukatu zen Duatloia, sei eta erdietan. Guztiak parte-hartzaile, guztiak irabazle.



Apirilaren lehenengo asteburuan egin zen bigarren aldiz Nafarroako Kirol Jolasetako Ultzamako Duatloia. Jakingo duzuen bezala, atletismoa eta txirrindularitza uztartzen dituen diziplina dugu hau. Ultzamako kasuan, korrika hasi ziren, gero bizikleta hartu eta berriro korrika bukatu zuten erronka. Eguraldi bikaina lagun, 134 parte-hartzaile aritu ziren kategoria desberdinetan. Holakoetan



2015eko OTSAILA

Gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Otsailean heriotza bat besterik ez da izan eta honako hau da:

ATETZ:
BEUNTZAN
Tomas Nazabal Lekunberri, *Ezkernekoa*.
Otsailaren 15ean hil zen 86 urtetan .

Gure oroimenean izango da



Tomas



GOGORATU:
EPEA:
MAIATZEREN 22A
SARIAK:
300, 200, 100€

ARGAZKIAK
APEZTEGIBE-
RRIN ETA
GIZARTE
ETXEAN UZTEKO
KUTXAK
JARRIKO DIRA



Iritsi zaigu udaberria

Baina udaberria iritsi zaigu. Elurak ezkututzen zuena bistaratu zaigu, eta nola ez, udaberriarekin batera loreak indarrez atera dira. Aurten oso goiz atera ziren, negua baino lehen udaberria izan zuten, baina negua iritsi zen eta loreak hil. Bigarren udaberria da honakoa, eta indar bereziz etorri da.



Belaten, udaberria negua bezain ederra da. Berriozkoa, Mendiborobil eta Gazteluzarra kaskoen inguruan lore ugari atera dira. Hego haizeak uneoro mugitzen ditu, baina lurrari eusten diote, negua berriz ere iritsi arte.

Basa-liliak, baso-anemonak, bitxiloreak, Pirinioetako eszila edo lilipak agertzen zaizkigu edonon, eta kolore kontraste handia sortzen da: larreetako berdearen inguruan zuri, more edo kolore gorrixka indartsuak agertzen dira.

Jakoba Errekondok hau idatzi zuen Liliaren inguruan:

“Ikurra da *Lilium* landare generoa, ikurren landarea baita, enblematikoa. Lis lorea edo lilia, hau da loreetan lorea, deitu diogu. Genero osoaren *Lilium* eta ingelesezko *lily* eta frantsesezko *lys* izenak, euskarazko liliatik datozela esan baino nahiago dute latindutako grekoko *leirion* hitzetik datorrela esan.



Lilia, berez, beste espezie bati, lore arrosa beharrean lore horia duenari deitzen zaio, *Lilium pyrenaicum*. Pirinioarra dena ere ez da nahikoa euskalduna. Hortixetik sortzen da, bada, ikurra, nobleziaren enblema, Nafarroako erreinutik. Noblezia edo jaun-andretxokeria eta era berean araztasuna adierazten ditu liliak.

Kristauen garbitzearen, garbitu bai garbitu, ikur da. Klodobeo Frantziako lehen errege kristaua bataiatu zenean bere armarrarian zituen hiru apo ederrak zerutik eroritako hiru liligatik aldatu omen zituen.

Gandiakak antzera azaltzen digu Arantzazuko ama birjina eta garbitze honen imajina etengabe berritzen da gure poeten garunetan (Luis Jauregi Jautarkol, Diego J. De Altzo, Anjel Bidaguren...). Zitoria ere deitzen diogu liliari; zito ala zital horia? Zito, gustuko dituen istingetatik; zital, berriz, edenetik, pozoitik letorkioke. Urbasako zitori gorriak ere badu bere dema.



Egun ingeles kulturakoek “zaintzen” duten nomenklatura botanikoan *Lilium martagon*aren martagona turkuen durbante modu bat adierazten duen “*martagan*” hitzetik datorrela ezagutu baino alkimista zaharren izen bat dela esan nahiago dute. Eta beraiek “*Turk’s-cap lily*” deitu.

Euskaldunon pare turkoak; turkoak ala kurdoak?”

ZORIONAK ZUEI!



Ane



Aimar



Iñigo, Oinatz, Maddi



BENAT ETA UXUE



JUNE



NAREN



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 - 722 766 835 Lizaso karikolaregoitz@gmail.com

¿CREES QUE LLEGARÁN SOLOS
A RECICLARSE? PONLE CABEZA
ZURE USTEZ, IRITSIKO AL DIRA BEREN
KASA BIRZIKLATZERA? EGIZU GOGOETA
RECICLA TUS RAE* BIRZIKLATU ZURE TEEHak*



Entrega tu viejo aparato en la tienda donde compres el nuevo, o usa los servicios de tu mancomunidad: el servicio de recogida de voluminosos (Tel. 948 302 898) o los puntos limpios móviles y fijos. Consulta en tu mancomunidad

Eraman zure tresna zaharra, berria erosten duzun dendara, edo erabil itzazu zure mankomunitateko zerbitzuak: tamaina handikoen bilketa zerbitzua (Tel. 948 302 898) edo garbigune mugikorak eta finkoak. Galdetu zure mankomunitatean

*Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos. / *Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak.

948 423 242 / www.mcp.es

Instalaciones Solares Térmicas
Instalaciones Solares Fotovoltaicas
Calderas y Estufas de Biomasa
Ahorro y Eficiencia Energética



Eguzki-instalazio termikoak
Eguzki-instalazio fotoboltaikoak
Biomasa galdarak, berogailuak eta lurreko suak
Aurrezki eta eraginkortasun energetikoa

685 907 634 - 685 907 635 tedesna@tedesna.com www.tedesna.com



DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL: 678 623866

argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizleak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

Sateliteari esker, internetera
konektatu zaitez



Senatel
Telecomunicaciones
848 410 500
Sta. Vicenta María 14 31012
IRUÑEA
info@senatel.es



Internet donde
no llega nadie

Antolatzaileak:



Babesleak:



Laguntzaileak eta txkeak erabiltzeko dendak:



LARRAINTZARKO
liburutegia



**irakurri,
gozatu eta
oparitu**

LARRAINTZARKO LIBURUTEGIAN
EUSKARAZKO LIBURU BAT ESKATU,
ETXEAN IRAKURRI ETA BUELSTATZEAN
TXEKE BAT JASOKO DUZU
BESTE LIBURU BAT EROSTEKO
%35EKO DESKONTUAREKIN

ARGIBIDE GEHIAGO LIBURUTEGIAN

LEHENENGO TXEKEAREN
ZOKKETA
APIRILAREN 22AN
IZANEN DA

GOZATU BIDAIAZ

